HONDAKIN EN BEHATOKIA

OBSERVATORIO DE RESIDUOS

2026

EMAITZEN TXOSTENA 2. EDIZIOA

INFORME DE RESULTADOS. 2ª EDICIÓN.
Ondorioen laburpen-dokumentua
2026ko Ekaina

araba álava
foru aldundia diputación foral

ZER DA ETA ZERTARAKO BALIO DU EKOBAROMETROAK?

Erabaki publikoak hartzeko eta herritarren hautematean oinarritutako tresna

Zer da?
Arabako Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokiaren tresna bat da, **herritarrek hondakinen sistemaren inguruan (kudeaketa, bereizketa eta zerbitzua) duten iritzia ezagutzeko** eta datu teknikoak gizarte-informazio esanguratsuarekin osatzeko.

Zertarako balio du?

1. **Herritarren iritzia kontuan hartzeko**: herritarrek inguruko hondakinen kudeaketarekin lotuta dituzten **beharrak, itxaropenak, kexak eta iradokizunak** biltzen ditu.
2. **Erabakiak hartzeko prozesua hobetzeko**: politika publikoak diseinatzeko maila **tekniko eta politikoan** zuzenean erabil daitekeen informazioa ematen du.
3. **Sistema gizartearen errealitatearen arabera egokitzeko**: zerbitzua diseinatuta dagoen modua ez ezik, herritarrek benetan nola erabiltzen duten ere kontuan hartzen du, horren arabera egokitzeko.
4. Egikaritze sistematikoaren bidez, **hondakinen bilketa-eta kudeaketa-sistemaren jarraipena egitea ahalbidetzen du**, herritarrek sistemaren inguruan duten iritzia oinarri hartuta.

Ekobarometroak herritarrek esan eta hautematen dutenari eta egiten dutela uste dutenari buruzko informazioa jasotzen du, horiek ez bait datoz beti bat benetako portaera-datuekin Desberdintasun hori funtsezkoa da, honako hauek ahalbidetzen baititu:

1. sistemaren eta hautematearen arteko desdoitzeak detektatu
2. ulermen-zailtasunak identifikatu
3. komunikazioa eta kudeaketa hobeto bideratu

Ekobarometroak ez ditu sistemaren datu teknikoak ordezkatzen, horiek osatzen ditu. **Bestalde, herritarrek zerbitzua nola interpretatzen duten, zer oztopo ikusten dituzten eta administrazioarengandik zer espero duten ulertzeko aukera ematen du.** Informazio hori funtsezkoa da erabaki publikoak hartzeko; izan ere, sistemaren iraunkortasuna sistemaren eraginkortasun teknikoaren mende ez ezik, **gizarteak ulertzeko, balioesteko eta legitimatzeko** duen gaitasunaren mende ere badago.

FITXA TEKNIKOA

Datu nagusiak

- 1.209 inkesta baliodun
- Laginketa-errorea: ±% 2,83
- Konfiantza-maila: % 95
- Landa-lana: martxoa, 2026
- Metodologia nagusia: telefono bidezko inkesta (CATI)

Laginaren lurralde-banaketa

- **Vitoria-Gasteiz: 604 inkesta (% 50)**
- **Gainerako kuadrillak: 605 inkesta (% 50)** Añana, Aiaraldea, Gorbeialdea, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa

Ohar teknikoak

- **Demografia- eta lurralde**-irizpideak erabiliz sortutako lagina
- **Kuadrillen arteko konparaketa** egiteko aukera ematen du
- **Politika publikoak aztertu eta planifikatzeko** oinarri sendoa eskaintzen du

Fitxa tekniko honek ikerketaren fidagarritasuna eta adierazgarritasuna bermatzen du, Vitoria-Gasteizen eta gainerako lurraldearen arteko banaketa orekatuarekin. Oinarri honi esker, lurralde-ezberdintasunak aztertzea eta erabaki publikoak hartzeko ondorio sendoak ateratzea ahalbidetzen du, maila estrategikoan zein operatiboan.

Zein da zure kezka-maila ingurumenari eta bere zaintzari dagokienez?

HONDAKINEN BEHATOKIA
OBSERVATORIO DE RESIDUOS

Ingurumenarekiko kezka gero eta handiagoa da

Datuak

📊 **% 75 baino gehiago nahiko edo oso kezkatuta** dago

📊 «Oso kezkatuta» daudenen kopurua **5 puntu** inguru handitu da

Azalpena

- Ingurumenarekiko kezkaren maila altu eta egonkor mantentzen da, eta horrek ingurumenak herritarrentzat gai garrantzitsua izaten jarraitzen duela erakusten du. Ez da nekerik antzeman; aitzitik, konpromiso-maila handiena duten profilen kezka areagotu egin da, kezka-maila ertainetik handira igaroz.

- Datu hori bereziki garrantzitsua da, politika publikoekiko eskakizun-maila ere areagotzen duelako. Herritarrak kontzientziatuta daude, eta sistemak kezka-maila horri erantzutea espero dute. Horrek aurrera egiteko aukera ematen du, baina, aldi berean, itxaropen horri behar bezala erantzuten ez bazaio, beste arrisku bat ekar dezake.

araba álava
foru aldundia diputación foral

Hondakinen eta bizi-kalitatearen arteko lotura ahultzen da

Datuak

📊 Adostasun-maila altua den arren, murriztu egin da: **2023ko % 84tik 2026ko % 76ra** Iritzien polarizazioa areagotu da

Azalpena

- Hondakinen sistemak bizi-kalitatean zuzenean eragiten duela hautematen duten herritarren kopurua nabarmen jaitsi da. Gehienak ados jarraitzen duten arren, aurreko edizioan baino adostasun-maila txikiagoa dago. Horrek herritarrek egiten duten ahaleginaren eta lortzen dituzten onuren arteko lotura ahultzen ari dela adierazten du.

- Ez du esan nahi uko egiten diotenik, baizik eta pixkanaka aldentzen ari direla: betebeharrak betetzen dituzte, baina gero eta gehiago kostatzen zaie helburua argi izatea. Joerak jarraituz gero, baliteke horrek eragina izatea biztanleek sistema hautematen duten moduan, zailagoa baita konpromisoa mantentzea erabilgarria dela argi eta garbi ikusten ez bada.

Ezagutzen al duzu Arabako Foru Aldundiaren Hondakinen Behatokia?

HONDAKINEN BEHATOKIA
OBSERVATORIO DE RESIDUOS

Oraindik, jende gutxik ezagutzen du Behatokia

Datuak

📊 **% 23** inguruk ezagutzen du Behatokia
📊 Hobekuntza txikia 2023. urtearekin alderatuta

Azalpena

- Gutxik dute Behatokiaren berri, baina, hala ere, ezagutza-maila hori pixka bat hobetu da aurreko edizioarekin alderatuta. Horrek esan nahi du tresna gisa duen garrantzia mugatua dela oraindik eta ez dagoela erabat txertatuta herritarrengan.

- Datuaz harago, erronka ez da soilik hura ezagunago egitea, baizik eta tresna erabilgarri bihurtzea ere. Behatokia, informazioa eskaintzeaz gain, askoz gehiago egiten duen tresna bilakatu behar da, sistema ulertzen laguntzeko, emaitzak azaltzeko, maila teknikoan eta politikoan erabakiak hartzen laguntzeko eta lurraldearekin lotutako benetako kezkei erantzuteko.

araba álava
foru aldundia diputación foral

Ba al dakizu zer egiten den edukiontzira botatzen dituzun hondakinekin?

HONDAKINEN BEHATOKIA
OBSERVATORIO DE RESIDUOS

Sistemaren inguruko ezagutza jaitsi da

Datuak

📊 Baiezko erantzunak: **2023ko % 70etik 2026ko % 50era**

Azalpena

- Hondakinen helmugaren inguruko ezagutza murriztu egin da, eta orain biztanleen erdiaren inguruk baino ez dute horren berri.

- Emaitza horrek portaeraren eta ulermenaren arteko ezberdintasuna utzi du agerian: herritarrek hondakinak bereizten dituzte, baina ez dakite ondoren horiekin zer gertatzen den.

araba álava
foru aldundia diputación foral

Zeintzuk dira zure inguruneko ingurumen-arazo nagusiak?*

Egunerokotasunarekin lotutako arazoek, hau da, ingurukoek, garratzi handiagoa dute

Datuak

📊 Inguruko zikinkeriak eta hondakinek gora egin dute, lehenengo bi postuetan kokatuz

📊 Klima-aldaketak garrantzia galdu du (**–11 puntu inguru**), 2023ko lehen postutik uneko hirugarrenera

Azalpena

- Analisiak aldaketa argia erakusten du ingurumenarekiko kezken hierarkian. Arazorik ikusgarri eta ohikoenak (adibidez, inguruko zikinkeria edo hondakinen kudeaketa) garrantzia irabazi dute arazo orokorrekin konparatuta.

- Horrek esan nahi du herritarrek gero eta gehiago ebaluatzen dituztela ingurumenarekin lotutako kontuak beren eguneroko esperientziatik. Beraz, hondakinen kudeaketa funtsezko elementu bilakatu da ingurumenaren inguruko pertzepzioan, eta horrek ekintza publikoan duen garrantzi estrategikoa sendotu du.

*Proposatutako arazoen zerrenda: Eremu berde gutxi - Lehortea - Biodibertsitate-galera - Argi kutsadura - Baso-suteak - Kutsadura akustikoa - Airearen kutsadura - Uren kutsadura - Elikagai-xahuketa - Klima-aldaketa/Klima-krisia - Inguruko zikinkeria - Zabor eta hondakinen bilketa - Beste batzuk

Zure ustez, zer garrantzi du etxean hondakinak bereizteak ingurumena zaintzeko neurri gisa?

Hondakinen bereizketa oso onartuta dago, eta funtsezkotzat hartzen da

Datuak

📊 **% 90 baino gehiagok uste du garrantzitsua edo oso garrantzitsua** dela

📊 Maila nahiko egonkorra 2023. urtearekin alderatuta

Azalpena

- Adostasun zabala dago bereizketak ingurumen-neurri gisa duen garrantziari dagokionez. Herritarrek ez dute zalantzan jartzen sistemaren helburua edo beharra, eta horrek esan nahi du sentsibilizazio-lana eraginkorra izan dela.

- Emaitza hori estrategikoa da, abiapuntua zehazten duelako: kontua ez da konbentzitzea, baizik eta herritarrei laguntzea. Dagoeneko, helburua garrantzitsua da herritarrentzat; hortaz, erronka ez da haren beharra arrazoitzea, baizik eta betetzea erraztea eta sistemaren koherentzia sendotzea.

Zein maiztasunarekin bereizten dituzu etxeko hondakinak (hondakin organikoak, ontziak, beira, papera, etab.)?

Erantzunen arabera, hondakinak bereizteko ohitura sendoa da, baina alde nabarmenak daude frakzioaren arabera

Datuak

📊 **>% 90ak dio maiz bereizten dituela beira, papera eta plastikoak eta ontziak**

📊 Gutxi gorabehera, **% 80ak bereizten ditu hondakin organikoak (duela hiru urteko ehuneko bera)**

Azalpena

- Gaur egun, hondakinen bereizketa ohitura bat da etxe gehienetan, batez ere finkatuen dauden frakzioen kasuan. Hala ere, hondakin mota bakoitzaren arabera egindako analisiak ezberdintasun argiak erakusten ditu: hondakin organikoak dira oraindik ahulgune nagusia.

- Emaitza hori funtsezkoa da ikuspuntu teknikotik: hondakin guztiek ez dute heldutasun-maila bera. Sistemaren ezarpenak aurrera egin du, baina orain zehaztasuna behar du, portaera guztiz finkatuta ez duten frakzio horiek bereziki jorratuz.

Zeintzuk dira etxean hondakinak ez bereizteko dauden arrazoi nagusiak*?

Erantzunen arabera, hondakinak bereizteko oztopoak praktikoak dira batez ere, eta ez jarrerarekin lotutakoak.

Datuak

📊 Arrazoi nagusia: **etxean toki gutxi izatea. Arrazoi horrek gora egin du, 2023an arrazoi argiena zen «arduragabekeria edo erantzukizun eza» aukeraren kaltetan.**

📊 Arduragabekeriaz eta erantzukizun ezaz gain, honako hauek ere nabarmendu dira:

- ohitura-falta
- errutinan txertatzeko zailtasuna
- edukiontziekiko distantzia edo edukiontzietarako sarbidea

Azalpena

- Hondakinak ez bereiztea azaltzen duten arrazoiak ez daude sistema baztertzearekin lotuta, baizik eta eguneroko zailtasun praktikoekin. Sistemak lekua, antolakuntza eta erosotasuna eskatzen ditu, eta etxeek ez dute beti horretara egokitzeko aukerarik.
- Horrek ondorio argi bat du: arazoak ez du zerikusirik sentsibilizazioarekin, baizik eta erabilgarritasunarekin. Sistemaren aurrerapena hura erabiltzeko errazago eta irisgarriago egitearen araberakoa izango da, sentsibilizazio-mezu orokorretan tematzearen araberakoa baino.

*Proposatutako arrazoiak:

- Ez dugu hori ez egiteak duen kostu ekonomikoa ezagutzen
- Ontziak daude, baina urrun
- Ez dugu hori ez egiteak ingurumenean duen eragina ezagutzen
- Zaila eta garestia da etxeko errutinan gehitzea
- Ez dago informazio nahikoa
- Gai honi buruzko kontzientziazio eza (gure ustez, alferrikakoa da)
- Arduragabekeria eta norbanakoaren erantzukizun eza
- Etxean ez dugu hori egiteko leku egokirik
- Beste batzuk

Zein da zure poztasun-maila hondakinen bilketa zerbitzuari dagokionez?

Zerbitzuarekiko poztasun-maila jaitsi egin da

Datuak

📊 Batez besteko poztasuna **2023ko 3,7 tik 3,4ra** murriztu da
📊 Pozik dauden biztanle kopurua: **% 64 (2023) → % 52 (2026)**

Azalpena

- Herritarrek zerbitzuarekiko duten poztasun-maila jaitsi egin da, bai batez besteko balorazioari bai pozik dauden pertsonen ehunekoari dagokienez.

- Baliteke gakoa sistemaren egiturazko akats batean ez egotea, baizik eta herritarren itxaropenen aldaketan. Herritarrek ohituratik onartu dute beren partea, eta eguneroko zerbitzu normalizatu baten eskakizunetik hasten dira sistema ebaluatzen, maiztasuna, garbitasuna eta irisgarritasuna kontuan hartuta. Ondorioz, beharrezkoa da pertzepzioa eta operatiba kudeatzea.

Zure ustez, edukiontziak behar bezain irisgarri al daude? Zer arazo ikusten duzu?

Inkestatutako pertsonen gehiengoaren arabera, edukiontziak nahikoa irisgarri daude.

Datuak

📊 **% 82,8ren ustez, edukiontzien irisgarritasuna egokia da**

📊 Egokia ez dela uste dutenek honako arrazoi hauek adierazi dituzte: distantzia eta kokapena; irisgarritasun fisikoa; eta irekitzeko sistemen eskakizuna

Azalpena

- Gehiengoarentzat sistema irisgarria den arren, badago edukiontziak erabiltzeko zailtasunak dituen biztanleriaren ehuneko bat. Oztopo horiek ez dira orokorrak, baina, kasu batzuetan, zerbitzuarekiko pertzepzioan eragiteko nahikoa garrantzitsuak dira.

- Datu horrek sistemak errealitate ezberdinetara egokitzeko duen beharra sendotzen du. Irisgarritasuna ez da azpiegituraren kontua bakarrik, erabilera-esperientziarena ere bada, eta zuzenean baldintzatzen ditu zerbitzua betetzeko erraztasuna eta harekiko pertzepzioa.

Zure ustez, egokia al da hondakinen bilketaren maiztasuna?

Gehiengoa ados dagoen arren, gero eta handiagoa da zerbitzuaren maiztasunari buruzko eskakizun-maila

Datuak

📊 **5 pertsonetatik 3k (≈% 60ak) uste dute maiztasuna egokia dela**

📊 **≈% 40aren iritziz, ez da egokia edo zalantzak dituzte**

Azalpena

- Biztanle gehienen ustez, sistemak, zentzu horretan, onargarriak diren estandarren arabera funtzionatzen du. Horrenbestez, maiztasuna ez da gaitzespen orokorra sortzen duen elementua.

- Hala ere, badago maiztasuna nahikoa edo egokitzat jotzen ez duen herritarren zati esanguratsu bat, eta horrek gero eta handiagoa den eskakizunaren seinale argia erakusten du.

Non* lortu duzu hondakinak behar bezala bereizteko informazioa?

Erakundeen kanalekin alderatuta, iturri informalek garrantzi handiagoa dute

Datuak

📊 Iturri nagusiak: 1. norberaren logika; 2. Internet; 3. ahoz ahoko informazioa.

📊 **Posta bidezko informazioak**, 2023an bigarren postuan zegoenak, **garrantzia galdu du**, eta bosgarren postura jaitsi da. **2026**an, **Internet** dago **bigarren postuan**, baina, hala ere, gutxi igo da ehunekoan, 2023arekin alderatuta.

Azalpena

- Herritarrek logika erabiliz bilatzen dute informazioa, Interneten bilatzeaz gain (kanal instituzionaletan zein instituzionalak ez direnetan). Bestalde, beste iturri informal batzuk ere erabiltzen dituzte, hala nola ahoz ahokoa.

- Beraz, erronka ez da kanal gehiago sortzea, baizik eta daudenek garrantzia irabaztea. Informazioak argia, ulertzeko erraza eta erabilgarria izan behar du, herritarrek erreferentziatzat erabil dezaten eta beren arauak sortu behar izan ez ditzaten.

Proposatutako eremuak:

- Logikaz egiten dut
- InfoRecikla
- Egunkariak eta idatzizko prentsa
- Telebista eta dokumentalak Eskolak/Prestakuntza-zentroak
- Posta bidez
- Administrazioek emandako hitzaldiak
- Ahoz aho
- Internet
- Beste batzuk

Zure ustez, informazio nahikoa al duzu hondakinak behar bezala bereizteko?

Gehiengoaren ustez, informazio nahikoa dute, baina hala ere ez dute sistema ulertzen

Datuak

📊 **~% 90ak uste du nahikoa informazio duela (2023ko balioaren antzera)**

📊 **~% 50ak soilik ezagutzen du hondakinen helmuga**

Azalpena

- Informazioaren pertzepzio-maila altuaren eta sistemaren ulermen-maila baxuaren artean itxurazko kontraesana dago. Biztanleek nahikoa informazio dutela uste dute, baina ez dute benetan ulertzen hondakinen kudeaketak nola funtzionatzen duen, ezta bilketaren ondoren hondakinekin zer gertatzen den ere.

- Datu horren arabera, arazoa ez da informazioa lortzeko dagoen gaitasuna. Benetako arazoa informazioaren argitasuna eta haren ulermena da. Sistemak informazio-logika batetik sistemaren funtzionamendua eta emaitzak ulergarri egitera bideratutako azalpen-logika batera eboluzionatu behar du.

Nola* gustatuko litzaizuke Administrazioak zurekin harremanetan jartzea berritasun, aldaketa eta albiste garrantzitsuei buruz jakinarazteko?

HONDAKINEN BEHATOKIA OBSERVATORIO DE RESIDUOS

Kanal zuzen eta irisgarriekiko lehentasuna, kanal orokorren aurrean

Datuak

📊 Posta bidezko informazioa: **≈% 35,6**
📊 Posta elektronikoz: **≈% 30,6**
📊 Komunikabideen bidez (prentsa/telebista/irratia): **≈% 18**
📊 Ez du informazio gehiagorik behar: **≈% 15**

Azalpena

- Herritarrek kanal zuzen eta irisgarriak lehenesten dituzte, bereziki postontzia eta posta elektronikoa, formatu orokorragoen aurrean. Era berean, informazio gehiago eskatzen ez dutenen garrantzia kontuan hartuta, erronka ez da informazio kopurua handitzea, baizik eta informazioa komunikatzeko modua hobeto egokitzea.

- Beraz, komunikazio argiago eta erabilgarriagoa behar da, herritarren benetako beharretara bideratuagoa, eta lehentasuna eman behar zaio erabilgarritasun praktikoari informazio-bolumenaren aurretik.

Proposatutako kanalak:

- Adituekin jardunaldi espezifikoak antolatuz
- Informazioa eta berritasunak web-orrialde batean partekatuz Sentsibilizazio-kanpainen bidez
- Leku publikoetan kartelak jarriz (markesinak, zentro sozialak, plazak, etab.)
- Ez dut informazio gehiagorik behar Prentsan eta/edo telebistan eta/edo irratian iragarkiak jarriz Pertsonalki, posta elektronikoaren bidez
- Postara informazio eguneratua bidaliz
- Beste batzuk

araba álava
foru aldundia diputación foral

Zer informazio mota* jaso nahiko zenuke hondakinen kudeaketari dagokionez?

Biztanleek emaitzetan oinarritutako informazio praktikoa eskatzen dute

Datuak

📊 2023arekin alderatuta, interesak apur bat egin du gora guztien kasuan, eta interes handiena dutenak honako hauek dira:

- hondakinak bereizteko modua
- zerbitzuaren kostua
- hondakinen helmuga
- hondakinek ingurumenean duten eragina

Azalpena

- Biztanleek ez dute informazio orokor gehiagorik nahi, baizik eta informazio erabilgarria. Batez ere, hobeto jarduten (hondakinak nola bereizi), sistema hobeto ulertzen (hondakinekin zer gertatzen den) eta hondakinen eragina (kostu ekonomikoa eta ingurumen-inpaktua) baloratzen laguntzen dien informazioa interesatzen zaie.
- Eskari hori bat dator sistemaren fase-aldaketarekin: interesa duten herritarrek sistema ulertu eta baloratu nahi dute. Horrek emaitzetara bideratuagoa dagoen eta zehatzagoa eta praktikoagoa den informazioa eskaintzeko beharra sendotzen du.

Informazio mota

- Hondakinak ondo ez kudeatzeak ingurumenean duen kostua edo eragina
- Gai honi buruz antolatzen diren hitzaldiak eta jardunaldiak
- Nola egiten da hau beste toki batzuetan. Jardunbide egokiak
- Non eta nola bidal ditzaket gai honi buruzko hobekuntza-kexak eta/edo proposamenak
- Nola bereiz daitezke hondakinak modu eraginkorragoan
- Hondakinak bildu eta kudeatzeko zerbitzua ekonomikoki kostatzen zaiguna
- Non eskura dezaket niregan eragina duten berritasunei buruzko informazioa Zenbat kostatzen du ekonomikoki etxean hondakinak behar bezala ez bereiztea
- Nola egiten da hondakinek kudeaketa eta zergatik egiten da horrela.

Zure ustez eta jasotzen dituzun zerbitzuak kontuan hartuta, egokia al da zabor-tasa?

Tasaren egokitasun-pertzepzioa ahuldu egin da, zerbitzuarekiko eskakizun handiagoko testuinguru batean

Datuak

📊 Tasa egokitzat jotzen dutenen ehunekoa: **2023ko % 49tik 2026ko % 34ra**

📊 **Erantzun nahi ez dutenek** edo **zenbat ordaintzen duten ez dakitenek** osatzen duten ehunekoa nabarmen **jaitsi da**

Azalpena

- Tasaren egokitasunaren pertzepzioa murriztu egin da, eta horrek esan nahi du zerbitzuaren kostuaren eta hautemandako balioaren arteko harremanarekiko gero eta sentikortasun handiagoa dagoela.
- Aldaketa horretan eragina izan dezakete kostuaren pertzepzioan eragiten duten testuinguru edo egoeraren araberako faktoreek. Horregatik, argiagoa izan daiteke herritarrentzat egin beharreko ahalegin ekonomikoa. Testuinguru horretan, zerbitzuaren ingurunean egiten den edozein doikuntza edo aldaketa tasaren balorazioan zuzenean islatzeko joera dago, sistemaren egitura ezer aldatu ez bada ere.
- Ikuspegi operatibotik, datuak funtsezko elementu bat nabarmentzen du: zerbitzu, kostu eta emaitzen arteko lotura sendotzeko beharra.

Ados egongo al zinateke tasa sortutako hondakinen kopuruaren eta hondakinak bereizteko moduaren arabera ezartzearekin?

HONDAKINEN BEHATOKIA
OBSERVATORIO DE RESIDUOS

Herritarrek beste ordainketa-eredu batzuk nahiago dituzte

Datuak

📊 Hondakinak behar bezala bereizten ez dituzten pertsonak zigortzearen aldeko adostasun-ehunekoa igo egin da 2023koarekin alderatuta: 2023an % 71koa zen, eta orain, berriz, % 76koa.

Azalpena

- Herritarrak ados daude kostua norbanako bakoitzaren jokabidearen arabera ezartzen duten sistemak erabiltzen hastearekin. Ikuspegi horrek pizgarriak eta emaitzak lotzen dituen erantzukidetasunaren logika txertatzen du.

- Datu hori bereziki garrantzitsua da epe ertainera, sistema aurreratuagoak ezartzeko aukera zabaltzen baitu, baldin eta ongi azaltzen badira eta jendeak bidezkotzat hartzen baditu. Gakoa da eredu hori gardentasunarekin eta argitasunarekin uztartzea.

araba álava
foru aldundia diputación foral

Ados zaude hondakinak behar bezala bereizten ez dituztenei edo gaizki botatzen dituztenei zigorrak ezartzearekin?

Biztanleek neurri zigortzaileak onartzen dituzte, baldin eta koherenteak badira

Datuak

📊 Gehiengoa jokabide desegokiak zigortzearen alde dago

Azalpena

- Herritarrek neurri zigortzaileak sistema hobetzeko tresna gisa onartzen dituzte, arrazoituta aplikatzen badira. Horrek heldutasun-maila handia erakusten du: araua onartzeaz gain, haren alde ere egiten dute.

- Hala ere, adostasun hori baldintzatuta dago. Zigorrak sistemarekin koherenteak direla hauteman behar dute herritarrek, eta horiekin batera informazio argia jaso beharko dute. Bestela, baliteke testuinguru jakin batzuetan neurriak gaitzespena eragitea.

Zure ustez, zer neurri* dira eraginkorrenak hondakinen kudeaketa hobetzeko?

Herritarren ustez, gizabidearen kontrako jokabideen ondoriozko zigorrak dira neurririk eraginkorrena

Datuak

📊 **Hondakinak gaizki bota edo kudeatzeagatik jarritako zigorrak** dira hoberen baloratutako neurria (2023an eta 2026an)

📊 **Edukiontzien erabilera kontrolatzeko** neurriak, aldiz, 2026an 2026an balorazioriK txarrena jaso dutenen artean daude

Azalpena

• Herritarrek funtsezko arazotzat jotzen dute gizabidearen kontrako jokabideak (hala nola hondakinak gaizki botatzea), eta, haien ustez, horiek zuzentzeko neurririk eraginkorrena zigorrak dira. Iritzi hori bi edizioetan mantendu da berdin.

• Edukiontzien erabilera kontrolatzeko sistemak 2026an balorazioriK txarrena jaso duten aukeren artean daude. Beraz, biztanleek adostasun txikiagoa erakusten dute murriztailetzat jotzen dituzten edo zerbitzuaren eguneroko erabileran eragina duten neurriei dagokienez.

• Oro har, biztanleak arauak betetzen ez dituztenen kasuan neurriak hartzearen alde daude, eta lehentasuna ematen diete neurri zuzentzaileei, sistemaren kontrol orokortua ezartzen dutenei baino.

Neurriak:

- Hondakinak leku edo egun ezegokietan botatzen dituztenei ereduzko zigorra ezartzea
- Ontziak koloretako kodeen bidez modu egokiagoan identifikatzea, biztanleek hondakinak behar bezala kudea ditzaten Plastikozko poltsen erabilera deuseztatzea
- Sarbide-kontrola duten edukiontziak jartzea Etxeko konpostatzea erraztea
- Jendeari ontziratutako produktu gutxiago erabiltzeari buruz kontzientziatzeko kanpainak sortzea
- Komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak sortzea
- Ontziak itzultzeagatik dirua itzultzeko makinak ezartzea
- Gaikako bereizketa behar bezala egiten laguntzen duten biztanleei saritzeko tresna ekonomikoak ezartzea, diru-itzulketak eginez Administrazioetatik modu argi eta gardenagoan informatzea
- Hondakinen sorkuntza murriztea, produktu iraunkorragoak kontsumituz eta gainontziratzeak zigortuz
- Garbigune-sarea eta puntu berde mugikorrak sendotzea

Hondakinen kudeaketari buruzko herritarren foroetan parte hartzea interesatuko litzaizuke?

Foroetan parte hartzearen aldeko interesa areagotu egin da, baina moderatua da oraindik

Datuak

📊 Interesa: **% 22 → % 27**

Azalpena

- Sistema hobetzeko guneetan parte hartzearen aldeko interesa areagotu egin dela ikus daiteke. Gehiengoaren kasua ez bada ere, oinarri hori nahikoa da partaidetza-prozesuak martxan jartzeko, ondo bideratuta badaude.

- Gakoa ez da bolumena, erabilgarritasuna baizik. Partaidetza eraginkorra izateko, emaitza argiak sortu behar ditu, eta hobekuntza zehatzak eragin, sistemarekiko konfiantza sendotuz.

Ondorioak

Ekobarometroak jakinarazten diguna da hondakinen kudeaketa-sistema **fase berri batean sartu dela herritarrei dagokienez.**

Ikus daitekeenez, herritarrek oinarrizko ohiturak barneratu dituzte neurri handi batean, baina orain beste zerbaiti jarri behar diogu arreta: biztanleek hobeto ulertu behar dute sistema, baita haren benetako erabilgarritasuna baloratu eta norberaren ahaleginak eredu kolektibo eraginkor baten barruan zentzua duela sentitu ere.

Une honetatik aurrera, sistemak ikuspegi teknikotik behar bezala funtzionatzen duela bermatzeaz gain, hainbat hurbilketa hausnartu beharko ditugu:

- **teknikoa**, herritarren pertzepzioan eragin zuzenena duten zerbitzuaren alderdiak sendotzeko: maiztasuna, irisgarritasuna, hondakinen kudeaketarekin lotutako garbitasuna eta sistemaren argitasuna.
- **soziala**, kontrasterako, entzuteko eta erantzuna jasotzeko guneak sortuz, herritarrek parte har dezaten eta partaidetza horrek ondorioak dituela eta erabilgarria dela senti dezaten.
- **estrategiko eta politikoa**, sistemaren zilegitasuna kalitate, zuzentasun eta gardentasunari buruz gero eta handiagoak diren itxaropenei erantzuteko duen gaitasunaren araberakoa ere badela onartuz.
- **komunikatiboa,** orotariko informazioaren logikatik azalpenean, argitasun praktikoan eta emaitzen trazabilitatean oinarritutako logikarantz aldatuz.

Gizarteak ulertu, defendatu, bere gain hartu eta parteka dezakeen hondakinen kudeaketa-eredua (eredu legitimatua) sortzea da erronka.

HONDAKIN EN BEHATOKIA

OBSERVATORIO DE RESIDUOS

2026

EMAITZEN TXOSTENA 2. EDIZIOA

INFORME DE RESULTADOS. 2ª EDICIÓN.
Ondorioen laburpen-dokumentua
Ekaina, 2026

araba álava
foru aldundia diputación foral